



Usurbilgo Udala

2022KO MARTXOAREN 17AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Ez dira bertaratu: Ainhoa Arrozpide Landa, Itziar Basterrika Unanue eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko martxoaren 17an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2022. URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA.

Beñat Larrañagak adierazi du azalpen orokorrak emango dituela eta bestelako zalantzarik balego Olatz de Miguel pertsonal teknikaria bertan dagoela eta honek argituko dituela.

Aldaketak bost kasuistika ezberdinen arabera proposatzen dituztela adierazi du.

Batetik, Eusko Jaurlaritzatik idatzi bat jaso dela esan du non zenbait gauza zuzendu edo eguneratu behar direla esaten den. Aipatutako idatziak lau puntu jasotzen dituela esan du, batetik, hornidura sistema jaso behar zela lanpostuen zerrendan, lanpostu horiek bai



Usurbilgo Udala

lehiaketa bidez edo bai izendapen aske bitartez betetzen ziren zehaztuz. Bigarrena, lanpostuen titulazioak eguneratzea Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 76. artikulua arabera. Hirugarrena, udaltzainetan BTP gida-baimena kentzea, ez dagoelako indarrean. Laugarrena, gaztelaniazko Lanpostuen Zerrendan dedikazioetan dagoen akatsa zuzentzea.

Bigarren kasuistikari buruz esan du lanpostuak numerazio baten bitartez kodifikatu direla, sortzen ziren nahasmenak ekiditeko asmoarekin.

Hirugarren kasuistikari buruz esan du langile bat dagoela %50ean Kultura, euskara eta gazteriako administrari bezala eta beste %50ean Garapen eta hezkuntzako administrari bezala. Datorren estabilizazio legegari begira zalantza zutela dio ea lanpostu bakarra zen edo bi ziren, zalantzak argitzeko asmoz izendapena egin zen momentuko espedienteaz aztertu dutela eta ikusi dutela dio izendapen bakarra zegoela egina. Beraz, bi sailetan banatuta dagoen lanpostu bakarra dela zehaztu du.

Laugarren kasuistika dela dio kirol saileko teknikariari dagokiona, sarbide titulazioa aldatzeko proposamena, hain zuzen ere. Momentu honetan edozein diplomaturarekin posible dela dio lanpostu horretara aurkezteko baina baloratu dutena izan dela dio ez dadila izan soilik kiroldegia kudeatuko duen pertsona, baizik eta izan dadila kiroldegia kudeatzeaz gain jarduera fisiko eta kirol politikak landuko dituen norbait. Hori dela eta, planteatzen dutena da sarbidea mugatzea eta IVEF-eko titulazio espezifikoa eskatzea. Hau behin onartuta, oinarriak argitaratzeko prest dituztela gaineratu du.

Bosgarrena kasuistikari buruz esan du Gizarte zerbitzu eta parekidetasun sailean administrari bat izan dutela programa baten bidez, programa hori bukatzeaz dagoela eta saileko arduradunak eta gobernu taldeak egiten duten balorazioen baitan, ikusten dutena da sail horretan administrariaren beharra estrukturala dela. Sail horretan azken urteetan etxetzeko laguntzailearen lanpostua hutsik egonenez, hori amortizatu eta administrariaren lanpostua sortzea proposatzen dute. Ondoren, lanpostu hau ohiko arauetan sartuko litzatekeela esan du, hau da, gehienez ere bitarteko funtzionario bidez 3 urtez bete ahal izango dela dio eta posible dutenean OPE batean sartu beharko dutela oposaketa-lehiaketa bidez hornitzeko.

Batzarkideek Pertsonal batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2022ko Lanpostuen zerrenda 2021eko azaroaren 25eko udalbatzan onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2021eko abenduaren 23an.

Lanpostuen Zerrenda horri orain aldaketa batzuk egiteko beharra suertatu da, arrazoi ezberdinak tarteko. Hauek dira egin nahi diren aldaketak, laburbildurik (xehetasunak txosten juridikoan jasorik daude):

1.- EUSKO JAURLARITZAKO IDATZITIK DATOZEN ALDAKETAK



Usurbilgo Udala

2022ko urtarrilaren 17ko 2022-0190 errejistro sarrerarekin Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu saileko Toki Adminstrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak idatzia aurkeztu zuen Usurbilgo Udalean, Lanpostuen zerrendari zuzenketa gomendio batzuk emanez.

1.1.- Hornidura sistema: lehiaketa eta izendapen askea jasotzea.

1.2.- Lanpostuen titulazioak: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 76. artikulua aurreikusitakoa betetzea:

- C2: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua
- C1: Batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea (edo dagokion adarreko titulua)
- C2/C1 azpitaldera irekitako lanpostuak: azpitalde bakoitzeko titulazioak
- A2: Gradu-titulua, lizentziatura, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomatua, arkitekto teknikoa edo baliokidea, lanpostu bakoitzerako dagokion adarreko berariazko titulazioa zehaztu ahal izatearen kaltetan gabe
- Gaikuntza Nazionaleko Toki Administrazioako funtzionarioak: Gradu unibertsitate-titulua

1.3.- Gidabaimena: BTP gidabaimena indarrrik gabe dagoenez kentzea (Udaltzaingoan).

1.4.- Gaztelaniazko Lanpostuen Zerrendako dedikazioak: Lehen hamaika postue dedikazio erregimeneko akatsa zuzendu.

2.- LANPOSTUEN ZERRENDAN POSTUAREN KODEA SARTZEA

“Postu Kopurua” zutabea kendu eta lanpostu bakoitzari bere kodea sartzea proposatzen da. Kodea saileko lehen zenbakiarekin eta postuaren hurrenkerarekin osatua dago.

3.- KULTURA, EUSKARA ETA GAZTERIAKO ADMINISTRARIA (%50eko LANJARDUNA) ETA GARAPEN ETA HEZKUNTZAKO ADMINISTRARIA (%50eko LANJARDUNA) LANPOSTU BAKARRA DELA ARGITZEA

Postu hau praktikan plaza bakarra da, bi sailetan lan egiten duena. Lanpostuen Zerrenda eta Plantila aldatu eta errealitatean den moduan plaza bakarra dela zuzendu behar da, Lanpostuen Zerrendan lanpostuari kode berdina ere emanez.

4.- “KIROL SAILEKO TEKNIKARIA” LANPOSTUAREN SARBIDE TITULAZIOA

A2 azpitaldeari dagokion titulazioak dira gradu-titulua, lizentziatura, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomatua, arkitekto teknikoa edo baliokidea, lanpostu bakoitzerako dagokion adarreko berariazko titulazioa zehaztu ahal izatearen kaltetan gabe. Kirol Saileko Teknikariaren kasuan adarreko berariazko titulazioa ezartzea proposatzen da (A2 azpitaldean mantenduz): Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua edo baliokidea.

5.- GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN SAILA: PROGRAMATIK ADMINISTRARI PLAZA SORTU ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZAILE PLAZA HUTSA AMORTIZATUZ



Usurbilgo Udala

2019ko apirilaren 17ko 2019/0386 dekretuaren bidez "Parekidetasun eta Gizarte zerbitzuetako sailean hainbat ekintza aurrera eramateko aldi baterako programa" sortu eta horretarako administrari bat behin-behineko funtzionarioa gisa izendatu zen, orain arte lanean jarraian aritu dena. Programa hasieran %50an hasi zen eta COVID pandemia tarteko %100era igo zen. Programa honi luzapenak eginda laister legez duen gehienezko 3 urteko iraupena agortuko du, 2022 apirilaren 21ean.

Saileko Lanpostuen Zerrendan eta Plantilan Etxez-Etxeko Laguntzaile plazetako bat 2017tik hutsik eta karrerako funtzionariorik gabe dago. Sailaren azterketa egin du Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun saileko arduradunak.

Proposatzen da Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Saileko administrari lanpostua sortzea, Etxez-Etxeko Laguntzaile plaza amortizatuz:

Izena:	Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun saileko administraria
Kodea:	6.5
Izaera:	Funtzionarioa
Taldea/azpitaldea:	C1
Eskala:	Administrazio Orokorra
Azpieskala:	Administraria
Titulazioa:	Batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea
Lanpostu maila:	14 (Usurbilgo Ordainketa Maila 13)
Berariazko osagarria:	20.965,05 euro
Hizkuntz eskakizuna:	3
Arduraduna:	Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun saileko burua, Gizarte langileak

Lanpostu honek Gizarte Zerbitzuen saileko administrariaren eginkizunak barneratzeaz gain orain arte indarrean egon den Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun saileko administrari programako eginkizunak ere izango ditu. Hizkuntz eskakizunaren eta derrigortasun-dataren inguruko aginduzko txostena eskatu dio Usurbilgo Euskara sailak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

Lanjarduna oraingoz %100ekoa izango da, baina sailean beste baliabideak jarritz gero zati bat beste beharretara erabiltzeko aukera ere aztertu liteke.

Egun programa betetzen duen langilea lanpostu horretan bitarteko funtzionario izendatzea proposatzen da. Ibarako administrarien udal lan-poltsa publikotik dator eta titulazio eta hizkuntz eskakizun ukanbeharrak betetzen ditu. Izendapen honek gehienezko 3 urteko muga izango du.

Lanpostuak sortzeko lege baldintzei buruz Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 126. artikulua zera dio: "2. *Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:*



Usurbilgo Udala

a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.

b) Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales

Alde batetik, Abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak ezarritako betekizunak daude.

Bestetik, Gizarte Zerbitzuez gain Berdintasun sailean ere ariko da, biak ere udal eskumeneko egitekoekin.

Amortizatzen den etxez-etxeko laguntzaile plaza E taldekoa eta 8. Ordainketa Mailakoa da (soldata hirurtekorik gabe: 30.097 euro). Bestetik, sortuko litzatekeen plaza C1 taldekoa eta 13. Ordainketa Mailakoa (soldata hirurtekorik gabe: 37.396 euro). Aldaketa honek ez du I. kapituluan koste gehigarririk, sortuko den lanpostuak aurretik aurreikusitako kostea jasoa zuen udal aurrekontuan, aldi baterako programaren bidez.

Lanpostu horretan izendatuko den funtzionarioak behin-behineko izaera izango du eta bere kasuan, I.Kapituluan gastu hori egonkortuko den edo ez du plaza sorrerak eragingo, gerora estatuko Aurrekontu Legeek bere kasuan ezarriko duten birjarpen tasa eta Lan Eskaintza Publikoak baizik.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dena den, egintza administratiboa den heinean, argitaratzea informazioa emateko helburuarekin egiten da eta hortaz, indarrean egongo da, Udalbatzaren erabakitik.

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta aldaketa proposamena 2022ko martxoaren 1eko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2022ko martxoaren 10an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga eta Itziar Bastarrika
- Abstentzioa: Josune Urkola

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: 2022ko Lanpostuen Zerrendan proposatutako aldaketak sartzea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”



Usurbilgo Udala

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

2.- 2022. URTEKO PLANTILA ORGANIKOAREN ALDAKETA.

Beñat Larrañagak adierazi du aurreko puntuan proposatu dituzten aldaketa guzti horietatik bik eragiten diotela plantila organikoaren zerrendari.

Batetik, Kultura, euskara eta gazterriako administraria eta Garapen eta hezkuntzako administraria bi lanpostu izango balira bezala jasota zeudela eta argitu denez lanpostu bakarra dela, horrela jasotzen dela adierazi du.

Bestetik, Gizarte zerbitzuetako administraria sortzearekin batera, etxez etxeko laguntzaile bat kentzen dela esan du.

Batzarkideek Pertsonal batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2022ko Plantilla Organikoa 2021eko azaroaren 25ko ohiko udalbatzan onartu zen. Ondoren, erreklamaziorik egon ez zenez, behin betikoz 2022ko otsailaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2022ko Lanpostuen Zerrendan proposatu diren aldaketek Udal Plantilan duten eragina honakoa da:

**1.- KULTURA, EUSKARA ETA GAZTERIAKO ADMINISTRARIA (%50eko LANJARDUNA)
ETA GARAPEN ETA HEZKUNTZAKO ADMINISTRARIA (%50eko LANJARDUNA)
LANPOSTU BAKARRA DELA ARGITZEA**

Postu hau praktikan plaza bakarra da, bi sailetan lan egiten duena. Lanpostuen Zerrenda eta Plantila aldatu eta errealitatean den moduan plaza bakarra dela zuzendu behar da, Lanpostuen Zerrendan lanpostuari kode berdina ere emanez.

**2.- GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN SAILA: PROGRAMATIK ADMINISTRARI
PLAZA SORTU ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZAILE PLAZA HUTSA AMORTIZATUZ**



Usurbilgo Udala

Lanpostuen Zerrendako aldaketan azaldu dira aurrekariak. Proposatzen da Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Saileko administrari lanpostua sortzea, Etxez-Etxeko Laguntzaile plaza amortizatuz:

Lanpostuak sortzeko lege baldintzei buruz Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 126. artikulua zera dio: “2. *Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:*

a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.

b) Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales.

Amortizatzen den etxez-etxe laguntzaile plaza E taldekoa eta 8. Ordainketa Mailakoa da (soldata hirurtekorik gabe: 30.097 euro). Bestetik, sortuko litzatekeen plaza C1 taldekoa eta 13. Ordainketa Mailakoa (soldata hirurtekorik gabe: 37.396 euro). Aldaketa honek ez du I. kapituluan koste gehigarriak, sortuko den lanpostuak aurretik aurreikusitako kostea jasoa zuen udal aurrekontuan, aldi baterako programaren bidez.

Lanpostu horretan izendatuko den funtzionarioak behin-behineko izaera izango du eta bere kasuan, I.Kapituluan gastu hori egonkortuko den edo ez du plaza sorrerak eragingo, gerora estatuko Aurrekontu Legeek bere kasuan ezarriko duten birjarpen tasa eta Lan Eskaintza Publikoak baizik.

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta aldaketa proposamena 2022ko martxoaren 1eko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2022ko martxoaren 9an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga eta Itziar Bastarrika

- Abstentzioa: Josune Urkola

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: 2022ko plantillan proposatutako aldaketak sartzea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Bozketa honela izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zafirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

3.- 2022. URTEKO SOLDATA IGOERA.

Beñat Larrañagak adierazi du Estatuko Aurrekontu Legeak kontenplazten duela 2022ko soldata igoera gehienez ere %2koa izan daitekeela eta, era berean, udal aurrekontuetan ere hori zela jasota zutena. Hala ere, kontziente direla dio KPIren igoera dexente gehiago izan dela.

Hau onartuz gero, urtarrilaren 1eko atzera eraginez aplikatuko dela esan du.

Batzarkideek Pertsonal batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Aurrekariak

2022 urteari dagokion langile publikoen soldata igoera dela eta, abenduaren 28ko 22/2021 **Estatuko Aurrekontuen Legearen 19. artikulua** zera dio:

“Dos. En el año 2022, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2021. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

(...)

Cuatro. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado Dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior. (...).”

(...)

Ocho. Los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos retributivos superiores a los fijados en este artículo deberán experimentar la oportuna adecuación, deviniendo inaplicables las cláusulas que se opongan al mismo.”

Bere aldetik, 11/2021 legea, abenduaren 23koa, **Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak** onartzen dituenak, zera dio:

“19. artikulua Langileen ordainsariak.



Usurbilgo Udala

1.– *Sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenak eragotzi gabe, 2022. urtean, lan-kontratudunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariek ezin izango dute % 2tik gorako gehikuntza orokorrik izan 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean. Ordainsari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzinasunari dagokienez, bai lanaldi-araubideari dagokienez.*

Azkenik, indarrean dagoen **Usurbilgo Udaleko Lan Hitzarmenak** zera arautzen du:

“88. artikulua.- Ordainsarien igoera

1. Erakunde sinatzaileek eros-ahalmenaren mantentzea hartuko dute erreferentzia modura. Horretarako Akordio hau indarrean dagoen bitartean, ezarri behar diren aurrekontu-arauen arabera izango da igoera.

Igoera urte bakoitzeko urtarrileko nominatik aplikatuko da, azken abenduko eta azken aurreko urteko abenduko Gipuzkoako KPI-a kontuan hartuz. KPI hori negatiboa izango balitz, ez da jaitsierarik aplikatuko. Hortik gorako igoerak urtez urte aztertu eta adostuko dira, uneko ekonomia eta legearen arabera.

Edozein kasutan, KPI-aren arabera igoerak beti ere legeak ahalbideratzen baditu eta legeak ahalbideratzen dituen neurrian burutuko dira. Legeak mugak jartzen baditu konpromezua ez da beteko (...)”

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta gaia 2022ko martxoaren 1eko Nezoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2022ko martxoaren 10 egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga eta Itziar Bastarrika

- Abstentzioa: Josune Urkola

Beraz, hori dena ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilgo Udaleko langileen lansariak %2a igotzea onartzea, 2022ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, beti ere 2021eko abenduaren 31ean indarrean zeuden lansariei buruz, eta alderatzen diren bi aldien artean homogeneotasuna bermatze aldera, bai langilegoa osatzen dutenen kopuruari dagokionez nola baita langile horien antzinasun sarien kopuruari dagokionez ere. Guzti hori estatuko 2022ko Aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 28ko 22/2021 legean jasotako ahalbidearekin bat etorriz.

BIGARREN: Akordio honen berri langileen ordezkariari eta Kontuhartzailera sailari ematea.”



Usurbilgo Udala

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- ADIERAZPENA: USURBILGO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKAK.

Alkateak adierazi du Antolakuntza batzordean honi buruzko azalpenak eman zituztela.

Hasteko hau nondik datorren azaldu du. Europako funtsei lotuta, funts horietako dirulaguntzak eskatzeko administrazio guztiek onartuta izan behar dutela dio iruzurraren aurkako plan bat, eta planarekin batera ere gaur plenora ekarri den adierazpena.

Alkateak idazkariari hitza eman dio azalpenak eman ditzan.

Idazkariak azaldu du, batzordean aipatu zen bezala, plana bera kudeaketa instrumentu bat dela ulertuz, alkate dekretuz onartuko dela, baina gaur plenora dakarten adierazpen instituzionalaren bitartez plenoak bere osotasunean udalari agindu bat ematen diola iruzurraren aurkako plan hau idazteko eta martxan jartzeko. Plana prestatuta dagoela dio eta batzordean banatu zela, eta adierazpen hau onartuko balitz bertan txertatuko litzatekeela.

Idazkariak jarraitu du esanez Planak jasotzen diren dirulaguntza horien kudeaketan jarraitu beharreko arau etikoak jasotzen dituela. Hala ere, batzordean aipatu zuten bezala, gaur egun aplikatzen diren eta martxan dauden neurriak direla eta ez dela aparteko ezer berririk sartzen gaineratu du. Hau da, planean jasotzen direnak derrigorrez bete beharrekoak direla azpimarratu du.

Bestalde, batzorde tekniko bat eratzen dela esan du eta honek plana exekutatzeko den horretan egiten diren jarraibideei segmentu bat egiten diela eta urtero txosten batean jasotzen dela dio gero plenoari egindakoen berri emateko.

Batzarkideek Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute Usurbilgo Udalaren iruzurraren aurkako politikari buruzko adierazpena aho batez onartu dute.

Honela dio onartutako adierazpenak:

“Iruzurraren aurkako politikak. Usurbilgo Udalaren adierazpena

Usurbilgo Udalak, bere eskumenen esparruan, iruzurraren aurkako politika indartzeko konpromisoa hartu du bere eginkizunen garapenean. Horretarako, arau juridiko, etiko eta



Usurbilgo Udala

moralak betetzeko estandar zorrotzak bere gain hartuko dituen tresna egokia ezarri nahi du, bai eta estandar horiek integritatearen, objektibotasunaren eta zintzotasunaren printzipioei atxikitu nahi ditu. Halaber toki-erakunde honek apustua egin nahi du iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako kultura bat garatu eta areagotzeko, udalarekin harremanetan dauden edo harekin parte hartzen duten eragile guztiak hautematen dutena.

Usurbilgo Udalak kultura etiko bat sustatu nahi du erakundearen barruan, iruzurrezko jokabideak edo jarduerak sorraraziko ez dituen eta horiek prebenitzea eta antzematea erraztuko duena.

Iruzurraren aurkako plana udalak onartuko du. Udalaren eskumeneko gastuei, kontratazioei eta dirulaguntzei eragiten die; gastuak onartzeko espedienteen legezotasuna, segurtasuna eta gardentasuna babesten ditu; iruzurra kontrolatzeko organoa izendatzeko eta funtzio eta kontrol sistema berriak esleitzeko erabiltzen da;

Izan ere, Europako Batasunaren Tratatuaren 274. artikulua araberan, Batzordeak bere erantzukizunpean gauzatu behar du aurrekontua, finantza-kudeaketa onaren printzipioaren arabera.

Gainera, estatu kideek Batzordearekin lankidetzan jardun behar dute, baimendutako kredituak finantza-kudeaketa onaren printzipioaren arabera erabiltzen direla bermatzeko.

Era berean, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikatu dakioken finantza-erregelamendua onartzen duen Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 53. artikulua 2. paragrafoari jarraituz, estatu kideek kudeaketa partekatuen eremuan irregulartasunak eta iruzurrak prebenitu eta horiei aurre egiteko erantzukizuna dute. Irregulartasuna nahita egin den (iruzurra) edo ez, gastu horiek Europako aurrekontuaren baterako finantzaketatik kanpo utzi behar dira.

Plan hau udalaren egoitza elektronikoan eta gardentasun atarian argitaratuko da.

Barne-kontrolko sistema bat ezarri nahi da, iruzurrezko edozein jarduera prebenitzeko eta, ahal den neurrian, detektatzeko eta, hala badagokio, horren ondorioak zuzentzeko. Horretarako, osotasun-, inpartzialtasun- eta zintzotasun-printzipioak hartu nahi dira kontuan bere eginkizunak betetzean.

Ondorioz, Usurbilgo Udalak Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartzeko konpromiso instituzionala hartu du, HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikulua xedatutako nahitaezko edukia eta epeak kontuan harturik.

Zehazki, honako jarduera hauek egiteko konpromisoa hartzen du, besteak beste, epe horren barruan:

- Arriskuen analisia eta ebaluazioa
- Kode etiko bat idaztea.
- Kanal Etikoaren Protokoloa idaztea.
- Interes-gatazkak prebenitzeko politika idaztea.



Usurbilgo Udala

- Oparien, otorduen eta joan-etorrien politika idaztea.
- Prestakuntza eta kontzientziazioa iruzurraren prebentzioaren arloan.
- Iruzurra kontrolatzeko organoa izendatzea.

Usurbilgo Udalak jakinarazpenetarako barne-kanalen bidez antzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzurraren eta ustelkeriaren susmoak salatuko ditu, eta iruzurraren aurkako koordinazio-erakunde eta -zerbitzuekin elkarlanean arituko da une oro.

Bereziki, konfidentzialtasun-printzipioa errespetatuz, iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin lankidetzan arituko da. Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala da iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin (OLAF) elkarlanean iruzurraren aurka Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko ekintzak antolatzeaz arduratzen den organoa.

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiaren barruan dago, eta, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25. xedapen gehigarriaren arabera, honako eginkizun hauek dagozkie:

- A. Estrategia nazionalen sorrera eta abiaraztea zuzentzea eta Europar Batasunaren interes finantzarioak babesteko beharrezkoak diren lege- eta administrazio-aldaketak bultzatzea.
- B. Sistema nazionalak Europar Batasuneko funtsen kudeaketarako izan ditzaketen gabeziak identifikatzea.
- C. Erakunde nazionalen eta OLAFen artean irregulartasunei eta iruzur-susmoei buruzko koordinazio- eta informazio-bideak ezartzea.
- D. Iruzurraren aurkako prebentzio eta borrokarako prestakuntza sustatzea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisolí eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- ADIERAZPENA: UKRAINA.

Alkateak Ukrainari buruzko adierazpena irakurri du.

Josune Urkolak aipatu du adierazpen honekin ados daudela. Hala ere, Antolakuntza batzordean gai hau landu zutenean EAJk puntu bat gehiago sartzea proposatu zuela esan du baina ez zela onartu, egoeraren larritasuna ikusita adierazpenak ondo daudela dio baina uste dute politikoei erabakiak hartzeko eskatu behar zaiela. Jarraian puntu hori irakurri du:



Usurbilgo Udala

“Erabateko babesa ematen diete Europar Batasunak eta Estatu kideek erabakitako ekimen eta ekintza guztiei, eta bide horretatik jarrai dezaten eskatzen diete, Ukrainari ahalik eta gehien laguntzeko eta gerra-erasoaren amaiera lehenbailehen lortzeko, hala nola indar inbaditzaile guztiak Errusiara itzultzeko.”

Alkateak adierazi du batzordean ez zutela alde bozkatu estatu kideei babesa ematen zaielako, eta horren aurrean esaten zutena zen hartu diren hainbat neurriren aurka daudela, besteak beste, zibilak armatzearen aurka. Modu kontrajarrian ikusten dituztela dio, batetik, Errusiar federazioari armak baztertzeko egiten zaion eskaera eta, bestetik, Ukrainako herritarrei eta herriari gerra egiteko armak bidaltzea. Beraz, puntu hori ez dutela babestuko dio, momentu honetan ahaleginak bide diplomatikoan eta bakea lortzeko jarri behar direlako.

Batzarkideek Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute Ukrainari buruzko adierazpena aho batez onartu dute.

Honela dio onartutako adierazpenak:

“Errusiako Gobernuak Ukraina erasotzeko eta inbaditzeko hartutako erabakiaren ondorioz, dozenaka pertsona hil dira, ehunka zauritu, eta asko eta asko alde egiten ari dira, bonbetatik ihesi.

Errusiako Gobernuaren oldarraldia justifikaziorik gabeko eraso da, inoiz ez bezalako larritasuna duena, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena, segurtasun globala eta egonkortasuna arriskuan jartzen dituen.

Horregatik guztiagatik, Usurbilgo Udalak honako hau onartu du:

1. Usurbilgo Udalak irmotasun osoz arbuiatzen ditu Errusiako Federazioak Ukrainan egindako ekintza militarrik, nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria dakartenak. Justifikaziorik gabeko eraso da, eta Europako segurtasuna eta egonkortasuna ahultzen ditu.
2. Usurbilgo Udalak borrokak berehala gelditzeko eskatzen du, eta armada errusiarra Ukrainatik erabat erretiratzeko. Ukrainaren subiranotasuna eta lurralde-osotasuna erabat babesten eta errespetatzen ditu eta deia egiten du Minskeko akordioetara itzultzeko.
3. Usurbilgo Udalak Ukrainari eta hango herriari erabateko elkartasuna eta estimua adierazten die. Bizien galera deitoratzen du, eta atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduarengatik. Sentimendu hori Usurbilen bizi den komunitate ukrainarrari ere helarazi nahi dio.
4. Usurbilgo Udalak Europar Batasunari eskatzen dio beharrezko laguntza finantzarioa eta humanitarioa eskaintzeko Ukrainari eta Ukrainako herriari, nazioarteko komunitate osoarekin



Usurbilgo Udala

koordinatuta. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak areagotzeko eskatzen du. Errusiari gogorazten dio nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko betebeharra.

5. Usurbilgo Udalak irmo eskatzen dio Errusiako Federazioari, nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzeko.

6. Usurbilgo Udalak Europar Batasunari eskatzen dio ahalegin handiagoa egin dezala kudeaketa diplomatikoen bidez deseskalatzea bultzatzeko eta bakeari eusteko.

7. Europar Batasunari, Estatu espainiarrari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die, ahalik eta azkarren antolatzeko, eraso militar hori eragiten ari den errefuxiatuak ahalik eta baldintzarik onenetan hartzeko. Eta agintari eskudunen esku jartzen du Usurbilgo Udalak bi etxebizitza, behar izanez gero Ukrainatik iristen diren errefuxiatuen esku uzteko.

8.- Usurbilgo Udalak Larrialdi Humanitario honi erantzuteko laguntza bat ere onartuko du.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Alkateak aipatu du harreman etengabe jarraitzen dutela Usurbilgo Udaletik errefuxiatuen harrera koordinatzen ari diren CEAR elkartearekin, Gurutze Gorriarekin eta Eusko Jaurlaritzako Migrazio sailarekin. Adierazpenean aipatzen den moduan, Usurbilgo Udalak bi etxebizitza jartzen dituela esan du beharra izanez gero errefuxiatuak artatzeko. Ulertzen duela dio egoera ez dela erraza, egoera aldakorra dela egunetik egunera eta eskumenak dituzten erakundeek egoera ordenatzeko zailtasunak dituztela eta ulermen horretatik jakinarazi du gaur dela eguna ez dutela argibide zehatzik edo eskabide zehatzik jaso.

Alkateak jarraitu du esanez Usurbilen badirela Ukrainatik etorri diren familia batzuk eta gaineratu du bera pertsonalki harremanetan dagoela familia hauekin.

Larrialdi humanitario honetan denek lagundu nahi dutela esan du, baina askotan ez dela bakarrik lagundu nahi izatea, azpimarratu du jakin behar dela ondo noiz eta nola lagundu.

6.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.